



## Mantxi txoria

Aprende euskera con tus txikis y este cuento. Accede a la unidad didáctica y el audiocuento en: <http://www.sorginatxirulina.eus/mantxi-txoria>

---

Bazen behin Mantxi izeneko txori bat.

Mantxi txoria oso **bihurria** zen eta lagunekin egotea asko gustatzen zitzaion.

Arratsalde batean, **ezkutaketan jolasten** ari zirenean, Mantxi galdu egin zen.

Basoko bide ilun batetik joan zen eta zuhaitz baten **adarrarekin** kolpe bat hartu zuen. Gizajoa lurrera erori eta **hego** bat apurtu zitzaion.

Érase una vez un pájaro llamado Mantxi.

Mantxi era muy **travieso** y le encantaba estar con los amigos. Una tarde, cuando estaban **jugando al escondite**, Mantxi se perdió. Fue por un camino oscuro del bosque y se dio un golpe con la **rama** de un árbol. El pobre se cayó al suelo y se rompió un ala.

Mantxi ezin zen askorik mugitu eta bere hegoa sendatzeko leku bat behar zuen.

—Nora joan ahal naiz? Gainera, laster **udazkena** etorriko da hotza egiten hasiko da. —**esian zion bere buruari.**

Mantxi no se podía mover mucho y necesitaba un sitio para poder curar su ala.

—¿A dónde puedo ir? Además, el **otoño** está a punto de llegar y empezará a hacer frío

—**se dijo a sí mismo.**

Horrela, **pauso makalez** emanaz jarraitu zuen bere ibilbidea.

Nekatuta zegoenean, **gaztainondo** bat topatu zuen eta gure Mantxik laguntza eskatu zion.

—Kaixo, Gaztainondo. Mina hartu dut hegoan eta bizitzeko leku bat behar dut. Zurekin geratu ahal naiz?

—Nirekin? Ez, ez, ez. Nik nire sagarroi **itxurako loreekin** nahikoa dut eta konpainia gehiagorik ez dut nahi. **Alde hemendik!**

Así, con **pasos débiles** continuó su camino.

Cuando ya estaba cansado, se encontró con un **castaño** y Mantxi le pidió ayuda.

—¡Hola, Castaño! Me he hecho daño en el ala y necesito un sitio para vivir.

¿Me puedo quedar contigo?

—¿Conmigo? No, no y no. Yo con mis **flores con forma de erizo** tengo suficiente y no quiero más compañía. **¡Vete de aquí!**

Mantxi oso triste geratu zen Gaztainondoren hitzak entzun eta gero.

Bere bidea jarraitu zuen eta beste zuhaitz bat ikusi zuen, **urki** bat.



- Kaixo Urki. —agurtu zuen Mantxik. —**Pozten nau zu ikusteak!**
- Oso okupatuta nago. Zer nahi duzu?
- Hegoa apurtu zait eta nire **kabia** egiteko zuhaitz bat behar dut. Zurekin geratu ahal naiz?
- Esan dizudan moduan, oso okupatuta nago eta, gainera, hori ez da nire errua. **Joan pikutara!**

Mantxi se quedó muy triste después de escuchar las palabras de Castaño.

Continuó su camino y se encontró con otro árbol, un abedul.

—¡Hola, Abedul! —le saludó Mantxi. —**¡Me alegro mucho de verte!**

—Estoy muy ocupado. ¿Qué quieres?

—Se me ha roto el ala y necesito un árbol para hacer mi **nido**. ¿Me puedo quedar contigo?

—Como te he dicho, estoy ocupado y además, no es mi problema. **¡Vete a freír espárragos!**

Mantxi **triste baino tristeago** jarri zen eta beste zuhaitz batengana joan zen. Oraingoan, **pago** bat izan zen topatu zuena.

—Kaixo Pago! Zure laguntza behar dut.

—Zer gertatzen zaizu? —galdetu zion.

—Udazkena **heltzear** da eta bizitzeko leku baten bila nabil. Beste zuhaitzek **ezetza eman** didate baina zuk zuhaitz ona ematen duzu.

—Zein zuhaitzekin hitz egin duzu?

—Gaztainondo eta Urkirekin.

—Txori maitia, zuhaitz horiek eta hirurok, **zuhaitz hosto erorkorrek** gara.

—Nola?

—Ba udazkenarekin batera, gure hostoak erortzen dira. Gu ez gara zuretzako etxe egokia.

Baina badakit nora joan ahal zaren. Ibilaldi hori jarraituz gero, aurkituko duzu behar duzuna, Mungia.

—Mila esker, Pago, baina agian galtzen naiz eta Mungia hori ez dut topatzen.

—Lasai, oso erraza da. Entzungo duzu musika bat eta hara joan behar duzu.

—Eskerrik asko! —eta musu handi bat eman zion.

Mantxi se puso **muy, muy triste** y fue a donde otro árbol.

En esta ocasión se encontró con un haya.

—Hola, Haya. ¡Necesito tu ayuda!

—¿Qué te pasa? —le preguntó.

—El otoño está a **punto de llegar** y estoy buscando un sitio donde vivir. El resto de árboles

**me han dicho que no**, pero tú pareces un buen árbol.

—¿Con qué árboles has hablado?

—Con Castaño y Abedul

—Pajarito, cariño, esos árboles y yo somos **árboles caducos**.

—¿Cómo?



—Con la llegada de la primavera se nos caen las hojas. No somos un buen hogar para ti, pero sé a dónde puedes ir. Si sigues ese camino, encontrarás lo que necesitas, Mungia.

—Gracias, Haya, pero.. ¿y si no encuentro Mungia?

—Tranquilo, es muy fácil de llegar, solo tienes que seguir la música.

—¡Muchas gracias! —y le dio un beso muy grande.

Gau horretan **izugarrizko haizea** zebilen eta gau osoan zuhaitzek mugitzen dantzan eman zuten. Horrela, hosto guztiak erori ziren eta zuhaitzen adarrak **biluzik** geratu ziren.

Goiz horretan gure Mantxik aurkitu zuen Pagok esandako leku hori.

Han entzuten zen musika hauxe zen.

Esa noche hubo un **fuerte viento** y los árboles pasaron toda la noche bailando y moviéndose.

Así, se les cayeron todas las hojas y las ramas de los árboles se quedaron **desnudas**.

Esa mañana Mantxi encontró el sitio que le había dicho Haya.

La música que es escuchaba era esta:

—Kaixo txori! Nola duzu izena? —galdetu zion **pinu** batek

—Mantxi naiz. Hegoa minduta daukat eta bizitzeko leku bat behar dut.

—Gurekin geratu ahal zara. Hemen gauza asko ikasten ditugu eta oso ondo biziko zara.

— Baina.... zure hostoak erortzen badira, zer egingo dut?

—Lasai, Mantxi. Gu gara **hosto iraunkorreko zuhaitzak** eta urte osoan zehar hostoak ditugu.

Orain **eskuak, adarrak eta hegoak luzatuko dizkiogu elkarri** eta **egunero alkarregaz** gure Mungia herriaz gozatuko dugu!

—¡Hola pajarillo! ¿Cómo te llamas? —le preguntó un **pinu**.

—Soy Mantxi. Tengo rota el ala y necesito un sitio para vivir.

—Te puedes quedar con nosotros. Aquí aprendemos muchas cosas, ya verás qué bien vives aquí.

—Pero...¿y si se caen tus hojas? ¿Qué haré?

—Tranquilo, Mantxi. Todos nosotros somos árboles perennes y tenemos hojas durante todo el año. ¡**Alarguemos nuestras manos, ramas y alas** y disfrutemos **todos los días juntos** de Mungia!

Mantxi txoriak oso azkar sendatu zuen bere hegoa eta hango herriari eskerrak emateko

**Larramendi** izeneko lagun batekin **jaialdi eder bat** antolatu zuen maiatzaren 28an.

Beste herrietako jende asko ere Mungalara hurbildu zen eta oso egun polita pasatu zuten guztiek.

Mantxi se curó muy pronto el ala y para dar las gracias al pueblo organizó una **bonita fiesta** con la ayuda de su amigo **Larramendi** el 28 de mayo.

Mucha gente de otros pueblos se acercó a Mungia y pasaron un día genial todos juntos.